itzulpena: Uxue Alberdi

Alfonsina Storni

Munduko
Poesia
Kaierak

Alfonsina Storni

itzulpena: Uxue Alberdi

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© Alfonsina Storni
© itzulpenarena: Uxue Alberdi
© edizio honena: Susa

2017ko martxoa

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Itsasoz jantzi omen zen behin Alfonsina Storni. Halaxe dio *Alfonsina y el mar* kantu famatuak, Ariel Ramirez-ek konposatu zuena Felix Lunaren letrarekin, eta gerora gisa askotariko jendeak interpretatu duena. Janzki horrek, jakina, egitate ez hain poetiko bat gordetzen zuen, Storniren suizidioa alegia. Kantuak dioenez, Storni ezarian, urratsez urrats, barneratu zen itsasoan; ikerlariek beste bertsio ez hain poetikoa babestu dute, ordea. Uharri batetik bota omen zuen bere burua uretara Mar de Platako La Perla hondartzan, berrogeita sei urte zituela. Aspaldi zen minbizi malapartatu bati buru egiten ziola.

Storniren itsasoarekikoa, ordea, ez zen soilik bere biziaren akaberako kontua izan. Haren poesia itsasoaren erreferentziez josirik da, *Itsasoaren aurrean*, *Hilerria itsas aurrean* edo *Mina* bezalako poemetan agerikoa denez. Mendebaldeko irudi poetiko errepikaria da itsasoa, eta gurean, esaterako, Joseba Sarrionandiaren sorkuntzan aski present dugu (Eider Rodriguezek aztertu du berriki harreman hori). Storniren kasuan, poetak itsasoaren indar eta amorrua ments dituela dirudi, beretzat nahi dituela haren ahal eta oldarraldiak.

Ez da hori, alabaina, Storniren janzki poetiko bakarra. Gizarte patriarkal batean emakume izatearen esperientziak blaitzen du orobat bere poesia osoa, bereziki gizonen maitale izatearen neke-zorigaitzak. Hemeretzi urterekin haurdun geratu eta Buenos Airesera joan zen bizitzera. Han jaio zen, 1912. urtean, bakarrik heztea egokituko zitzaion Alejandro semea. Haren omenezkoa da hil baino lau urte lehenago publikatu zuen *Zazpi putzuko mundu* poema liburua. Gizonek eragindako zaputz eta amorrazioak, esan bezala, tai gabe azaltzen zaizkigu bere poemetan, lerro suntsitzaileekin maiz: “gizonek nahiago dituzte haragiari emanak”. Izan ere, Storniren poesiaren ezaugarri agerikoenetakoa da idazkeraren indarra; hitzak aho zorrotzeko aizto dira haren poesian. Ez alferrik, *Lapitza* poeman, lehergailu batekin konparatzen du ni poetikoak poltsan daraman arkatza. Zenbait urte lehenago idatzia, bi Gabrielen armen aurrekaritzat jo liteke lapitza: Celayaren etorkizunez kargaturikoarena eta Arestiren mailuarena. Orobat, Arestirengana (*Nire izena* poemara zehazki) darama ezinbestez euskal irakurlea *Nire hilarrirako epitafioa* poemak. Munduaren gorabeherengatik libro, baketan azaltzen da

Storniren nia hilarrian; Arestik, seguru asko, izango du han ere motiborik kexa-protestarako.

Buenos Airesera joan zelarik, lehenengo kolaborazio eta argitalpenak publikatzen hasi zen, tartean estreinako poema liburua 1916an, *Arrosondoaren ezinegona*. Ordukoak dira halaber hainbat aldizkaritan argitaratuko dituen artikuluak, aldarrikapen feministez onduak gehienak. Geroz eta poeta ezagunagoa egin ahala, gizonezkoenak ziren zenbait gunetara sarbidea lortu zuen, besteak beste, Anaconda eta Signo talde literarioen bilkuretara. Anacondan ezagutu omen zuen Horacio Quiroga idazlea, eta hil arteko harreman estua izan zuten. Haren heriotzan poema lazgarria idatzi zuen Stornik, lehen lerrotik lazgarri: “Zu bezala hiltzea, Horacio, zeure senean”. Quirogak minbizia zuela jakin berritan erabaki zuen biziari fini esatea zianuroa lagun, Storni itsasoz jantzi baino urtebete lehenago. Senean hil ziren bi-biak.

BEÑAT SARASOLA

Arrosondoaren ezinegona

Ezinegonez loratuz doan arrosondoa
elikatzen duen izerdia errez doa.
Erreparatu arrosondotik erortzen diren arrosei:
hainbeste dira, gaitz horrek hilko du!
Arrosondoa, gaztea, eta loreak azkarregi ematen
hasia,
agortuz doa arrapaladan bizia.

Bizitza

Zoro ditut nerbioak, zainetan
suzko likidoa, odola borbor
ezpainetara datorkit, eta hor
itxuratzen da gezurrezko pozetan.

Barre egin nahi dut; penak,
gustura oparituko nituzkeenak,
gaur ez dira nirekin jostatzen eta ni naiz
haien baitako tristezia urdinarekin jolasean
dabilena.

Mundua taupaka; harmonia osoan dut sentitzen
dardarka, eta neure dut egiten
zerbitzatzen ditudan sorgin-kopletan.

Izan ere, leihoa ireki baitut oraintxe bertan
eta udaberriak bere eguzkia ekarri dit
haizearen hegal ezin finagoetan.

Injustizia

Hamar urte nituen orduan.
Sos batzuk lapurtu
zituzten amaren diru-kutxatik.
Igandea zen... Gogoan dut!

Errudun jo ninduten,
injustuki, eta nire lotsari
egindako erronka hementxe,
barru-barruan, iltzatu zitzaidan.

Gogoan dut gau hartan
nire ohatzean etzanda
anarkia-ernamuin bat heldu zela
nire burmuinean iniziatzera.

Belarrira

Musukatu nahi banauzu..
—ni ere nago irrikan—
ahoa libre utz zaidazu...
emadazu muin begietan.

Ez aipa musu samurrak,
lepoan zure arnasa...
jeloskor dauzkat kizkurrak,
laztanduidazu adatsa.

Zure laztanarentzako
begiak hitzak badira,
asmoak asmatzen ditut
zure begiei begira.

Zure eskuak nirean
dar-dar, txori baten antza,
eta aditzen da airean
maitasun zahar baten dantza.

Gau ilun hau hilik datza
sabai astralaren pean.
Isilik dago baratza
amets hilgarri batean.

Alabastro ñabardura,
lilura, pagodarena.
Ikusi hango izar hura!
Ariman daramat dena.

Isilik, zaude isilik...!
Geldi-geldi dago ura,
estalki berdez jantzirik
hondarra lo geratu da.

Bai ondo lurrin eztitan!
Musurik ez ezpainetan!
Platinozko gau honetan
emadazu begietan.

Otsemea

Otsemea bezalakoa naiz.
Artaldea birrinduta
mendira alde egin nuen
lautadaz akituta.

Seme bat dut maitasunarena, baina maitasun legerik
bakoa,
ezin bainintzen izan besteen gisakoa, idiaren
kastakoa,
uztarria lepoan; nire pentsamenduak libre dabiltza!
Neure eskuekin apartatu nahi dut sasitza.

Ikusazue nola seinalatzen nauten, nola ari diren
barreka,
garbi mintzo bainaiz: (Hara hor, arkumetxoak beeka
otseme bat dakusatelako ukuilura sartzen,
otseme bat, sasitzatik artegira ausartzen).

Artaldeko ardiak, koitaduak bezain mantsoak!
Ez dizue otsemeak minik egingo, ez izutu,
arkumetxoak.

Baina tentuz egin irri, finak ditu-eta otsemeak
hortzak,
eta basoan ikasiak amarru zorrotzak!

Ez dizue otsemeak ostuko artzaina, lasai;
badakit norbaitek hala esan zuela eta zuek sinistu,
bai.
Baina otseme hori ez da lapurra, dena dira marmar-
hotsak;
hiltzeko armak dira haren hortzak!

Propio sartu da kortan, plazer duelako
artaldea ikaraz ikustea bera iritsi orduko,
eta artaldeak nola disimulatzen duen irriz izua,
erremin bitxia keinuan zirriborratua.

Zoazte, eta egin bekoz beko otsemeari kontra
eta ostu otsokumea; eta ez joan saldoka
artaldearen babes ergelean, ezta ere artzaina
gurtzen...
Zoazte bakarrik! Ausartu indarrak neurtzen!

Ea, arditxook, erakutsi hortzak... Ondo txikiak,
benetan!

Horrela ezin ibili jaberik gabe, gajook, mendi
malkartsuetan,
ezen tigreak erasotuz gero, defendatzeke,
ezgauza, arroilan hilko zarete.

Otsemea bezalakoa naiz. Bakarrik beti, artalde
otzanaz naiz trufatzen. Nire mantenuaren jaun eta
jabe,
edonon delarik ere, dut lanerako esku ahaltsua
eta burmuin bat, osasuntsua.

Niri jarraitzeko kapaz dena, datorrela nirekin.
Ni, baina, zutik nago, aurrez aurre etsaiarekin,
bizitzarekin, eta ez diot haren oldarrari izurik,
eskuan prest baitaukat aiztoa zorrozturik.

Semea lehenik, eta gero ni, eta gero... zergura!
Agian borrokara berehalakoen deitzen nauen hura.
Apika ilusioa, maitasun kusku batena,
loratu aurretik nire eskuetan zimelduko dena.

Otsemea bezalakoa naiz.
Artaldea birrinduta
mendira alde egin nuen
lautadaz akituta.

Enarak

Tristeziaren mezulari samurrak...
txoriño beltzak dira, gaua bezain beltzak.
Mina bezain ilunak!

Enara samurrak, alde egiten dutenak neguan
habia abandonaturik eta hutsik utzita
itsasoa zeharkatzeko orduan!

Hotz leuna dut aldi oroz sentitzen haiek ikustean
O! Txoriño beltzak, txoriño urduriak,
apirilaren amoranteak.

O! Enara gaixoak, emigratzaileen antzera
lur arrotzetara doazenak
ogi apurrak biltzera.

Heldu, enarak! Zatozte, enarak!
Zatozte udaberri gisako, doluzko hego horiekin
heldu nigana!

Eutsi niri zuen hegoetan... Eutsi eta zeharka

hegaldi bakarrean, beti-betiereko
itsasoaren zabala.

Ba al dakizue nola bidaiatzen den eguzkiaren
aberrira?
Ba al dakizue non dagoen betiereko bedatsa,
maitasunaren iturria?...

Eraman nazazue, enarak! Eraman! Ez zaitezte
aztora
Bohemioa naiz, bohemio gajo bat
Eraman nazazue nahinora!

Ez al dakizue, enara alderraiok, nola jakin,
arima eri dudala ezin dudalako
nik ere hegan alde egin?

Heldu, enarak! Zatozte, enarak!
Zatozte udaberriko! Doluzko hegoekin
heldu nigana!

Zatozte! Naramazue laster menturara!...
Pena da, txikiok, zuen hegoak urdinez
ehunduak ez izana!!

Honela

Honela egin nuen liburua:
uluka, negarrez, ametsetan, ai ene.

Tximeleta triste, lehoi eme krudel,
bietarik eman nuen: argi eta ospel.
Lehoi nintzela, osoro ahaztu nuen
nola behin tximeleta izan nintzen.
Tximeleta nintzela, ezin pentsatu ere
eraso nezakeenik hagin eta erpe.

Uzkurtuta aldika, jauzika ondoren,
bizia odoldu zidaten eta odol bizitan hil nuen.
Gero, nintzelarik uso,
altzifre astun edo sastraka eder,
negar egin nuen gelditu gabe.
Gatzetik zein eztitik dastatu ondoren
begiek negar egin zidaten.
Berdin dio, orduan, bat zer den:
nektar ala behazun, arrosa ala ezten.

Horrela nabil egarri gaizto hau bilbatzen
edozein taxutako jardinak kimatzen.

Min astuna

Bizitzak ematen didan min astuna
min gozoa da, ezen abiatze-eguna,
bizitzatik urrun eraman behar nauena,
hurbilago izanen dut.

Eskuetan arrosak ernetzen zaizkit
baina hainbeste tximeletak xurgatzen dute haietatik,
idorraren idorrez ahitzen direnean,
ai, idortuko naiz ni.

Zuri nahi nauk

Hik egunsenti nahi nauk,
Nahi nauk aparrezko,
Nahi nauk nakarrezko.
Zitoria nola,
Garbia oroz gain.
Lurrin fineko.
Korola hetsiko.

Ilargi-izpi batek ere
Irazi gabea.
Bitxilorerik batere ez nire
Ahizpatzako.
Hik elurkara nahi nauk,
Hik zuri nahi nauk,
Goizalba nahi nauk hik.

Hik, kopa guztiak
Eskura ukan hituenak,
Ezpainak fruituz
Eta eztiz more.
Hik, aihenez estaliriko

Oturuntzan
Dena eman huenak
Bakoren ohorez.
Hik, engainuaren
Jardin Beltzetan
Gorriz jantzirik
Laster egin huenak hondamendirantz.

Hik, hezurdura duanak
Oraino ukigabe,
Batek jakin zein
Mirariren jabe,
Nahi nauk zuri
(Jainkoak barka hazala),
Nahi nauk garbi
(Jainkoak barka hazala),
Nahi nauk egunsenti!

Egik ihes basoetara,
Hoa mendira;
Garbi ezak ahoa;
Bizi hadi bordetan;
Uki ezak eskuekin
Lur bustia;

Elika hadi
Sustrai mingotsez;
Edan arroketatik;
Lokar hadi antzigarretan;
Berritu itzak ehunak
Kresalez eta urez.
Mintza hadi txoriekin
Eta jaiki goizalban.
Eta haragia
Goldatzen zaianean,
Eta hartan jartzen duanean
Etzalekuetan endredatuta
Utziriko arima,
Orduan, gizon zintzo,
Nahi nazak zuri,
Nahi nazak elurkara,
Nahi nazak garbi.

Bi hitz

Gaur gauean belarrira esan dizkidak bi hitz
arrunt. Bi hitz nekatu,
bi hitz usatu. Zaharraren
zaharrez berri diren hitzak.

Bi hitz, hain gozoak, adaxken artetik irazten zen
ilargia nire ahoan pausatu baita. Hain gozoak bi hitzak
inurri bat baitabilkit lepoan eta ez baitut
uxatzeko zirkinik egiten.

Hain gozoak bi hitzak
nahi gabe baitiot: o! Bai ederra, bizitza!?
Hain gozoak, hain otzanak,
olio lurrintsuak baitituzte soinera isurtzen.

Hain gozoak, hain ederrak,
urduri, nire hatzak
zerurantz higitzen baitira guraizeak iduri,
O, nire hatzek izarrak
nahi litizketek ebaki.

O, zu!

O, zu, mendean naukazun hori! Zergatik iritsi zara
berandu?
Zergatik orain, arimak surik ez badu,
arrosarik batere ez badut zuri
girlanda alai bat egiteko izarren irudi?

O, zu, iturburuko uraren zurrumurrua
bezain hitz gozoko; usapalaren urrua
bezain ezti; gozo, nola musu lokartuak
bi esku zurbil habia-babesleen gainean pausatuak.

O, zu, nire burua zure esku artean har dezakezun
hori
eta ernatu jaietako arbola bailitzan, loretan jori,
eta eragin nire ezpainetan irribarre,
bat-batean argitzen den zeru lainotuaren pare.

Zergatik etorri zara berandu? Zergatik orain,
sugar suntsitzaileak hartua didanean gain,
su jainkotiarrak guztiz birrindu nauenean

eta, itsututa eta triste, bide beltz batean barrena
noanean?

Nik, jainkoen jainko, guztiz berritu nazaten nahi dut.
Eho nazatela lirioz; misterioaren eskuz
kima nazatela; ken diezadatela sasitza.
Zure ezpainek ezin senda dezakete gogo hitsa.

Zure ezpainentzat, ur garbia.
Zure ezpainentzat, beirazko kopak eta apar zuria,
erleez, eztiez eta loreen gorriaz
deus ez dakien arimak isuria.

Sekula meztitu gabeko zure eskuentzat;
sekula negarrik egin gabeko zure begientzat;
urrezko beltxargen antzeko zure ametsentzat;
nire lorratzen atzetik letorzkeen zure ninientzat,

Zure eskuek estuturiko nire petaloek, magiaz,
botere harrigarrien jabe, argi bihurtuko balira
eta astroen argiari atxikita
baletoz zure niniak nire lorratzari segika.

Zorionekoa irentsi nauzulako hil beharra;

zorionekoa udaberriak zimeltzen duen garra;
zorionekoa arrosondoak hiltzen dituen zure sua:
koroletatik gertu bego zure malura.

O, zu! Izateaz gaindi miresten zaitudana,
O, zu! Biziberritu nazan hautatzen dudana.
Zergatik zatoz orain ezin ikusi dudanean
tormenturik ederrena: nire hostogabetzea?

Transfusioa

Nire odolaren ongarri da zure bizitza
eta biziki maite zaitut, biziki; ahal baneza, ene!,
zeru beltzen azpian, lehoi eme,
hortzez jango nizuke bihotza.

Zu ezagutu aurretik, ni, lapurraren tokian
eta orain zer naiz, preso koldarra.
Bai ederra nire udaberriaren indarra!
A zer distira nire koroarena zure bekokian!

Nirea den odolak zure begi-ninietan dagi su,
eta arratsaldero ezpainetan jartzen dizkizu
mahats gozoa eta ogi printza.

Eta bitartean; aire bako lore, harpeko korola,
zugan zukutzen naiz fruitu bat nola
eta zure esku artean ihes doakit bizitza.

Bihozkada

Bizitza laburra izanen dudan susmoa dut.
Nire buru honek, arragoa bailitzan,
garbitu bezala du kontsumitzen.
Baina arrangurarik gabe, izu-izpirik gabe,
akaburako, nahi dut, lainorik gabeko arratsalde
batean,
eguzki garbiaren azpian,
jaio dadin jasmin handi batetik sugegorri zuri bat,
zeinak, gozoki, bihotzean hozka egingo didan.

Larunbata

Goiz jaiki eta oinutsik ibili nintzen
korridoreetan: lorategietara jaitsi
eta landareei muin eman nien.
Lurraren lurrun garbiak xurgatu nituen
belazean etzanda;
lirio berdez inguraturiko iturrian
bainatu nintzen. Gero, adatsa orraztu nuen,
oraindik urez blai. Jasmin-zuku usaintsuz
lurrindu nituen eskuak. Koartza
erretxin fin batzuek
papur urrekarak ostu zituzten nire gonatik.
Segidan, harizko soinekoa jantzi nuen, arinagoa
gaza bera baino.
Jauzi arin batez atarteraino eraman nuen
lastozko besaulkia.
Nire begiak burdin sarean kakotu ziren, finko.
Burdin sarean finko.
Erlojua mintzatu zitzaidan: goizeko hamarrak.
Etxe barnean, baxera eta kristal-hotsa;
jangela, itzalpean; esku batzuk
mahaizapiak prestatzen.

Kanpoan, eguzki errea,
mailadiaren marmol zuriaren gainean.
Nire begiak burdin sarean finko.
Finko. Zure zain.

Karratuak eta angeluak

Etxe lerrokatuak, etxe lerrokatuak,
etxe lerrokatuak.
Karratuak, karratuak, karratuak,
etxe lerrokatuak.
Jendeak karratua du ja arima,
ideiak lerrokatuak
eta angelua bizkarrean;
nik neuk isuri dut
bart malko bat:
Jainko maitea, karratua!

Tentazioa

Kanpoan euria ari du; astun dator ura,
jendeak aterki irekien pean itzurtzen duen hura.
Akabo nire bakea denak ilaran ikustean,
pisu zaizkit hormak, eta bizkar biluziaren gainean
liluragarria zait isuria. Nire asaba xehea
leizeetan izenik gabe bizi zen jendea,
bart ni tentatzera da etorri,
izan ere, ni, garbi eta gorri,
zelaietan barna joango nintzateke euri finaren pean,
hegodun adatsez, enara baten antzean.

Zer esango luke?

Zer esango luke jendeak, mozdadez eta eskasiaz,
halako egun batez, ultrafantasiaz,
ilea tindatuko banu zilarrez eta morez,
tunika greziarra jantzi eta apain-orraziaren ordez
zinta loratua paratuko banu: miosotiak edo
jasminak,
eta joango banintz kalean kantari, eta nirekin,
biolinak;
edo nire bertsoak esango banitu plazetan,
mozal oiesetatik askaturiko pozetan?

Saldoka letozke niri begiratzera?
Erre egingo nindukete, sorginen antzera?
Mezetara deituz lebilzkike ezkilak errepika?

Egiaz, barregarria da, pentsatzen jarrita.

Bidaia

Gaur begira dut ilargia,
zuri eta neurrigabe.

Bart gaueko berbera da,
biharko berbera.

Baina beste bat da, inoizko
handiena eta zurbilena.

Dar-dar dagit argiek
uretan bezala.

Dar-dar dagit begietan
malkoek nola.

Dar-dar dagit arimak haragian
dar-dar egiten dakien gisara.

Hara! Ilargiak zilarrezko
bi ezpainak mugitu ditu.

Hara! Ilargiak hiru
ele zaharrak esan dizkit:

“Heriotza, maitasuna, misterioa...”.
O, akabo nire haragi-mamiak!

Haragi hilen gainean
uzkurtzen zait arima.

Arima? Katu gautarra?
Ilargiaren gainera egin du jauzi.

Zeru luzean barrena doa
triste eta uzkur.

Zeru luzean barrena doa
ilargi zuriaz gaindi.

Heriotzak nahi balu

I

Zu eta ni, bidazti, edozein egunetan eta
espaloirik hautatu gabe iritsi ginen bidera.
Guztiek daramatenaren antzeko trajea soineratu
eta haien itxura, ohiturak, manerak genituen hartu.

Luze ibili gara, brida ikusezinez lotuta,
begiak hesgailuz nekatuta.
Basaperrexil apur bat dugu eskuetan,
fruituen zaporerik ez gehiago mingainetan,
eta badakigu egunen batean bizitzak ahaztuko
gaituela, bidazti, erabat ezabatuko.
Eta zuk eta nik oihan lurrintsuak ezagutu genituen...
Eta zuk eta nik arrosak ebakitzen huts egin genuen.

II

Badakizu, bidazti? Berandu nabil asmoak sortzeko,
bidean atzera eginez norabide berriak saiatzeko.

Hain dut egarri basa, ezen ahoa erretzen baitit,
eta harkaitzari darion ura irrikatzen dut nik.
Azala busti nahian nabil ur-lasterren xerka,
arrosaz eta eztiz elikatzea dut apeta,
edo goroldioen gainean lokartzea, hitzari entzungor egitea
eta beltxargaren eta ahuntzaren lagun izatea.
Gertatuko balitz zu nire bakarleku freskora biltzea
baliteke zure eszeptizismo zaharrak ni aurkitzea
jakintzaren arbolapean eserita.

III

O, bidazti, bidazti, hitz egin heriori
eta esan ez oztopatzeko nire bidea, aldeko dudala zori,
hurbildu nadin haitzera, ezagut dezadan harpea,
itzul dadin nire ezpainetara frutaren zaporea.
O, bidazti, bidazti, hitz egin heriori
eta esan uzteko loreak ebakitzen, aldeko dudala zori,
edertasunez beteta egon daitezen nire eskuak,
gainean arrosa irekiak eta arrosa kuskuak.

Heriok utziko balit, mantso, bidazti,
mirtozko koroaz, eguzkipean azti,
ekingo nioke bidexka berriari.

Hoa hegan

Habil, hoa hegan, erle nahi haut;
loratu dituk jardinean amapolak,
eta nektar finez mukuru korolak;
bihar hire arima zaharturik egongo duk.

Habil, hoa hegan, izan hadi usoa,
zeharka basoa eta mokoka lurrak,
eskuz esku jan ogi-apurrak,
hozka, mamitsu, sagar gozoa.

Habil, hoa hegan, izan hadi enara, altxa,
bila ezak urrezko ekien hondartza,
dasta, udaberriaren gatza,
paregabea eta zoragarria duk bedatsa.

Ez haut estutuko, bestela laster haiz egarriz hila.
Habil, hoa munduan barna, hausnarrean;
itsasontzia prest duk ur gainean
boga, lilura gorenaren bila.

Korri, ibili gehiago, ez duk aski lehena,

badituk oraino irrikak eskueran,
korri, ibili, jiratu, igo eta egin hegan:
goza oro, eder duk dena.

Hoa hegan, ez hau nire maitasunak geldiaraziko;
ongi haut entenditzen, bai, ongi haut entenditzen!
Egin biezat bizitzak negar, bihotzak zimiko;
hoa hegan hi, maitea, guztiz haut konprenitzen.

Isilik arima, bihotza hautsirik,
nik askaturik hegoak, hoa, baina itzul hadi,
Nola ekarriko duk bihotza, bidaiari?
Izango diat bihotz garaituarentzat errukirik.

Hain egarri larria edanarekin ase dezaan
baduk hiretzat zidor andana,
baina gaua duk jada; hartu patxadan:
denak zatozak nigana.

Liburu hau

Bizitzaren sakonetik datozkit gauza hauek, horra:
pilatuz aritu nintzen, isla naiz orain…
Ur etengabe nahasia eta aldakorra;
nola eta gauzak mudatzen diren, ispilua ere bai.

Bizitzako uneak preso hartu zituen nire lumak,
bizitzako uneak, gero ihesi joan zirenak,
uneak, suaren biolentzia zutenak
edo agian bitsezko maluten arintasuna.

Nire izatea non, une haietan orotan,
eta aldakorra, mudakorra den zera honetan guztian,
ispiluak gorde zuen sustantzia osoan,
jantzirik gabe, garbi eta biluzi dago arima.

Bidazti, ni ez nago eta banago beti nire bertsoetan,
baina liburuan aurrera egin ahala aurkitu ahalko
nauzu,
zure orratz eta balantza oro atalasean uzten baduzu:
lorezain-errukia erabili behar da ene lorategietan.

Arima biluzia

Arima biluzia naiz bertso hauetan,
arima biluzia, larritasunez eta bakarrik
isurtzen ditudan petalo sakabanatuetan.

Arima, datekeena mitxoleta loratua,
edo lirioa, bioleta,
haitza, basoa, olatua.

Arima, haizea nola, alderrai artega dabilena,
itsaso gainean orro egin eta
arrakalan gozo lokartzen dena.

Arima, itsutzen ez duten Jainkoak gurtzen
dituena bere aldareetan;
arima, ez duena hesirik ezagutzen.

Arima menperatzen erraza,
bihotz bat balitz, erdibitu eta bere odol
epelez hura blaitzeko kapaza.

Arima, negu berantiarrari hots
egiten diona udaberrian: zatoz,
eror bedi elurra belazean, hotz.

Arima, elurra denean tristura urdinez
disolbatzen dena, udaberrian
biltzen gaituzten arrosei dei eginez.

Arima, badakiena aldika tximeletak askatzen
lur zabalean, distantziarik ezarri gabe,
eta esaten: segi, segi mundua dastatzen.

Arima, hil behar duena lurrin batez,
hasperen batez, otoitz-bertso batez...
baina, ahal dela, dotorezia betez.

Arima, ezer ez dakiena eta dena ukatzen
duena, ona ukatuz faboratuz ongia
ukoan baitu bere burua eskaintzen.

Arima, atsegin duena arimak ukitzea,
lorratzak baztertzea,
eta eskuan laztan bat sentitzea.

Arima, bere buruarekin bat ez datorrena baita,
alderrai dabilena haizea bezala, korri eta bira;
arima, odoletan dena, eta haren desira:
itsasontzi izatea izarrari jarraika.

Isiltasuna

Noizbait hilotz izanen naiz, elurra bezain zuri;
gozo, arratsalde euritsu bateko ametsak iduri.

Noizbait hilotz izanen naiz; hotz, harria lain;
geldi, ahanztura nola; goibel, huntza bezain.

Noizbait neureganatuko dut arratseko loa,
bidearen amaierako amets abaroa.

Noizbait nire loa hain izanen da luzea,
iratzartzeko ere alferrik izanen baita zure musuen
hezea.

Noizbait, mendi hau bezala egongo naiz,
bakardadean,
basamortu luzearen eta itsasoaren artean.

Arrats betea izanen da, samurtasun zerutiarrez,
txorien isiltasunaz, hirusten malkarrez.

Udaberria, arrosa koloreko, haur baten ezpaina
bezain,
ateetatik sartuko da, hatsa lore-usain.

Udaberri arrosak masailetan ipiniko dizkit jori
—udaberri arrosak!— bi arrosa hori.

Udaberri eztia, zetazko eskuetan jarri zizkidana
gorri eta zuri, arrosatxo bana.

Udaberri eztia, zu maitatzen irakatsi zidana,
udaberri hura bera, zu lortzen lagundu zidana.

O, hila nengokeen azken arratsa irudikatzea lortu:
hiri baten hondakinak bezala, mendetsu eta mortu.

O, arratsaren horia, urmael-isiltasunez,
laru eta geldi, ilargiaren argilunez!

O, harmonia osoz mozkorturiko arratsa:
bai mingotsa dela bizitza!, bai zuzena azken hatsa!

Ahaztura betikora garamatzan heriotza justiziazkoa,
txori alderraia habian hartzen dutenen gisakoa.

Eta ninietara eroriko zait ongi-nahiz egina
azken orduko argi zeru-urdina.

Argi iragazia, datorrena zerutik behera
ninietan errezel gozo bat jartzera.

Argi iragazia, estaliko duena nire azala
errezela ukiezinez, eztei-beloak bezala.

Argi bat ariman emeki xuxurlatuko duena:
bizia leizea da; heriotza, espazioa, dena.

Eta baretasun geldoenez desegin nazala
urrezko hondartzan aparra bezala.

O, isiltasun, isiltasun... hauxe da ilunabarra
odoletik ihes joan zaizkidana sua eta garra.

O, isiltasun, isiltasun... neure ohe ertzetik
zure ahoak, aho maiteak, gozoki deitzen dit.

O, isiltasun, isiltasun... oihartzun gabeko zure
musuak hor,

nire ariman, galtzen dira dardarti eta idor.

O, isiltasun, isiltasun... luzatuz doan arratsean
tristurak pausatzen dira zure malko garratzean.

O, isiltasun, isiltasun... mututu dira hegaztiak,
lokartu dira loreak, gelditu dira itsasontziak.

O, isiltasun, isiltasun... izar bat erori da samurki
lurrera
samurki eta isilik, goitik behera.

O, isiltasun, isiltasun... badator gaua nire ohera,
ezkutuka, xuxurlati, uluka, erregutzera.

O, isiltasun, isiltasun... Isiltasunak ukitzen nau
eta itzaltzen dizkit begiak, eta itzaltzen dit aho hau.

O, isiltasun, isiltasun... nire eskuak bakean hozten
eta hatzak poliki zorrozten...

Lore hori naiz

Ibai zabala da zure bizitza, emaritsu dator behera,
gozoki sortzen naiz ni, ikusezin, haren ertzera.
Lore hori naiz: ihi eta atxira artean galdua,
zuk errukior elikatu arren, begiratzen ez diozuna.

Haztean, arrastaka naramazu eta hiltzen naiz zure
baitan,
lehortzean, apurka hiltzen naiz zure basatan,
baina gozoki sortuko naiz berriro
egun ederretan emaritsu zatozen aldiro.

Lore galdu hori naiz, zure hegietan
umil eta isil sortzen dena udaberrietan.

Arbasoen zama

Hik esan hidan: ez zinan negarrik egin aitonak;
ez diten negarrik egin nire arrazako gizonek,
altzairuzkoak zitunan.

Esan orduko sortu zitzaian malko bat
eta ahora erori niri... pozoia:
hain edalontzi txikitik sekula
edan gabea ninduan.

Andre makala, andre gaixo ulerkorra,
mendeetako mina eragin zidaan edate hutsak:
minaren pisua jasateko ahulegi
nire arima-gorputzak.

Gizon ttiki

Gizon ttiki, gizon ttiki,
Aska hire kanarioa, utziok hegan…
Ni nauk kanarioa, gizon ttiki,
utzidak salto egin dezadan.

Hire kaiolan egon ninduan, gizon ttiki,
gizon ttiki, emanik niri kaiola.
Ttiki, zioat, ez bainauk ulertzen,
eta ez ulertuko inola.

Nik ere ez haut ulertzen, baina bitartean
irekidak kaiola, ihesi beharrean bainago;
gizon ttiki, ordu-erdiz maitatu hindudan,
ez eskatu gehiago.

Herra

O, mitxoleten udaberria,
on beharrez nire etxea loratzen duzuna,
korolak apaindu ondoren,
joan.

Muxua, su bizietan biziena,
iltza ezazu beldurge zure deabru-ezproia,
erre nire arima, baina gero,
hegalda.

Urrezko irria, mugikor eta zoro
arima askatzen duzuna itzaletatik,
ahora jalgi orduko,
eten.

Erruki biguna, akatsaren maitale,
pausoan-pausoan bihotza urtzen duzuna,
irauli zure eztiak eta istantean,
alde.

Herra itzela, ilunetan ilunena,
zeta sastakai bihurtzen duzuna,
apenas ezagutzen zaitudan herra,
gelditu.

Itsasoaren aurrean

O, itsaso, itsasotzar, bihotz basa
erritmo aldakorreko, bihotz zital,
ni naiz zure uhinetan herbal,
usteltzen ari den makilatto eskasa.

O, itsaso, emadazu zure suminetik ugari,
barkatuz igaro dut-eta bizitza,
ulertua bainuen, itsaso, ematea zela giltza:
“Errukia, errukia gehien iraintzen duenari”.

Arrunkeria, arrunkeria dut jarraika.
A, erosi nau hiriak, erosi nau gizonak!
Har nazala zure sumin sakonak:
arrosa-misio hau nekagarria baita.

Ikusten arrunt hori? Arrunt horrek damait pena,
hatsa dut faltan eta falta horretan gera nadin,
ez ulertu nahiago nuke, baina ezin:
arrunkeria da pozoitzen nauena.

Pobretu nintzen, ikastea delako mingotsa,
Pobretu nintzen, ikastea delako itobeharra.
Bedeinkatua harriaren indarra!,
baina nik aparrezkoa izan bihotza.

Itsaso, nik zu lakoa nahi nuen izan,
noiz eta, nire bizitza oren epeletan
zabaltzen zen arratsaldeetan...
A, nik zu lakoa nahi nuen izan.

Ikus nazazu hemen, txiki, erkin,
minek eta ametsek guztiz bentzitua;
itsaso, emadazu, eman, indar infinitua
bilakatzeko harro, eskuraezin.

Emadazu zure gatza, iodoa, basakeria,
Itsas airea!... O, erauntsia! O, sumina!
Zorigaiztokoa naiz, sasi ziztrina,
eta hilen naiz, itsaso, nire gabezian eroria.

Eta itsastarra dut arima, ez besterik.
Ai, hiriak du usteltzen eta nahasten;
bizitza txiki honek dit sufriarazten,
baneuka haren pisuaz askatzerik!

Doala hegan nire seta, esperantzarekin batera...
Nire bizitza, agian txarretan txarrena,
arteria geldigaitza behar zuena
apenas den orbain, baina beti minbera.

Baliteke

Baliteke nik neurtitzetan oro sentitua
ez izatea sekula izan ezin zena baino,
zerbait debekatua eta erreprimitua,
sendirik sendi, emaztetik emazteraino.

Diote egin beharreko guztia neurtua zegoela
nire jendearen familia-leinuetan…
Diote isilak izan direla amaren aldeko
emakumeak… Baliteke benetan…

Inoizka, amari askatasun-irrika sumatu nion,
baina samin sakona igo zitzaion
begietara, eta itzalean egin zuen negar.

Eta garrazturiko, garaituriko, mutilaturiko hori
dena,
haren ariman itxita zegoena,
ez ote dudan neuk askatu, oharkabean.

Malenkonia

O, herio, maite zaitut, baina zu gurtzen zaitut,
bizitza...
Nire zerraldoan betiko lokarturik noanean
sarraraz ezazu azken aldiz ene begi-ninietan
udaberriko eguzki-printza.

Utz nazazu lipar batez zeruaren berotasunaren
pean,
utzi eguzki emankorrari dardararazten nire
izotzean...
Hain zen ona goiztiriarekin pizten zen izarra, hara
non,
opa zidana: egun on.

Ez nau izutzen atsedenak, ona da pausua
baina, aurretik, datorrela goizero-goizero
ume bat bezain pozik eta bero,
nire leihora iristen zen bidazti errukiorraren musua.

Deiadarra

Inoiz, bizitzan barrena,
Errukiz, maitakor,
Iturriak nola, emankor,
Bihotza eman nuen.

Eta maleziarik gabe eta akaso grinatsu
Bidean zihoanari, esan nion:

— Gobernatzen gaituen legeari egiten diot men:
Bihotza eman dut.
Eta esan orduko, oihartzuna bailitzan,
Ahoz aho zen zabaldu:
— Begiratu eme gaiztoari, hortxe doanari:
Bihotza eman du.

Ahoz aho, teilatuz teilatu
Deiadarra zen zabaldu:
— Jaurti horri harriak aurpegira!
Bihotza eman du.

Odoletan dut, bai, aurpegia,
Baina lotsa oroz salbu,
Gizonengana jiratu eta behin eta berriz diot:
Bihotza eman dut!

Armadura

Emakume: bai zu, bertutetsua, bai zu, zinikoa,
eta zu, axolagabea edo zitala;
begiraiogun elkarri begietara ausarki:
ongi ezagutzen dugu elkar. Garbi ditzagun kontuak.

Armadurapean gabiltza: arima
handiegia bada, hura ebakiz; txikiz
armadura betetzen ez badu, hura puztuz:
beti daramagu burdin jantzia soinean.

Armadura ankerra! Hala ere, eutsiozue ongi.
Inoiz suntsitzen ahaleginduko bazinete,
urrun jaurtitzeko ahaleginak berak
nire gisan utziko zintuzkete: ongi hilak.

Gutun lirikoa beste emakume bati

Ez dakit zein den zure izena, ez zure aurpegia,
eta zurbil irudikatzen zaitut,
ahul, lehen kimuen gisan,
txiki, gozo... Nola esan?... Jainkotiar.
Zure begietan, eguzkitara abandonaturiko
aintziraren barea dakusat, haren urrea
gozoki xurgatuz, dena isilik dagoen bitartean.

Eta zure eskuak, finak, luzatzen
eta luzatzen doan eta gero, ikusazu,
bertsoren batean hiltzen eta amaitzen
den nire min hau bezainbeste.

A! Halakoxea al zara? Esadazu ahoan
erlauntza marmartirik baduzun,
zure belarriak arrosa-petalo
harroak lakoak diren...
Esadazu, izar urrunei begira
apalki negar egiten duzun,
eta esku epeletan uso zuriak

eta urrezko kanarioak lokartzen zaizkizun.
Hori dena eta gehiago baitzara, dudarik ez,
zu, miresten nuen gizona esku gozoen
artean duzun hori, zu, oharkabean akaso,
nire esperantza oro hil duzun eder hori…
Zu, haren kuttuna.
Hura zurea baita osorik: Gorputz eta arima
dastatzen duzu nik isilpean
gordetako maitasuna… Jainkoak daki nolatan
nik ezin dudan haren barnera iritsi.
Aitortzen dizut behin nire besotik
hain egon zela hurbil, luzatu izan banu,
agian, orain nirea izango zen zurea
den zoriona... Bai! Nirea, akaso...
Baina, ikusazu, hain nuen gastatua arima
nire besoa ez baitzen luzatu.
Ulertzen duzu orain? Orain, zure besoetan
lokartzen da eta hitz txikiak
eta xeheak esaten dizkiozu,
petalo hegalari eta zuri-zurien antzekoak.
Agian mutiko ilehori bat etorriko da gero
begi xaloetan kopiatzera
zure begiak eta harenak batuta
ispilu urdin eta gardenean...

O! Doituiozu bekokia! Hain baitzeukan zabala!
Hain irmoki sortzen zitzaion ilea
izur handietan, hurbil izatera
doitu egingo bainioke, ondo doitu ere!
Gero, utzi haren ezpainei zure eskuetan
alderrai ibiltzen; behin esan baitzidan
ez zegoela bere arimarentzat deus gozoagorik
emakume-eskuak musukatzea baino...
Eta agian noizbait ni, bizitzaren
aldirietan alderrai ibilitako hau
—jauntxoen leihateetara joan eta,
bekaizkeriarik gabe, festari so
egoten diren filosofo eskaleak nola—
zure albora bildu, eta hitz
lasai, xuxurlatiekin eskatuko dizkizut,
une batez, zure eskuak,
neuk musukatzeko, hark musukatzen dituen bezala...

Eta haiek emeki, txit emeki arakatzean
pentsatuko dut: hemen hartu zuten ostatu,
zenbat denboran, haren ezpainek? Zenbat denboran
zureak diren esku jainkotiarrotan?

O! Zeinen gozamen mingotsa, zure zetazko

eskuen gainean, zain urdin-urdinen artean
haren lorratzak bilatu
eta jarraitzeko atsegintasun hau!

O! Nire ezina! Haren jabetzakoa izan ezina,
haren arima menderatu ezina, hura eduki ezina,
hemen, nire oinpean errenditurik, ezin berdindua
arrasto esanezin pasiotu bat nireganatzeko
gozamen beldurgarria.
Eta han, zugan, hesia,
hesi kartsua, bizia, ukitu hutsak
neke mingotsa eragiten baitit,
eta babesten nauen isiltasun hau,
eta amiltzen naizeneko oinaze hilgarri hau,
sentimenduaren mugiezintasun hau,
dena galduta dagoenean bakarrik
brastakoan jauzi egiten duena.

Gaur arratsaldean

Urruneko zerbait maitatu nahi dut orain
gizon jainkotiarren bat
hegaztia bezain gozoa dena,
ezin konta ahala emakume izan dituena
eta dakiena beste lur batzuei buruz, eta
hitza ezpainetan loratzen zaiona, lurrintsu:
oihan birjinaren antzekoa haizepean.

Eta oraintxe nahi dut maitatu. Goroldio
sarria lako arratsalde bigun eta lasai honetantxe.
Dardarka dauzkat ahoa eta atzamar finak,
txirikordak desegiten ari zaizkit, emeki.

Marmar lauso bat dut nabari; lurra
gozoki ari da kantari. Urrun,
basoak korolaz bete dira,
errekek gainez egin dute
eta ura zoruan irazi da
nire begiak liluraturik
amesten ditudan begietan nola.

Baina
badator eguzkia mendietan behera,
uzkurtu dira hegaztiak habietan,
arratsaldea hiltzear da, eta urrun dago hura,
urrun, inoiz geratzen ez den eguzki hau bezain,
badoa, baina ni albora utzita, eskuak
txirikordetan hondoratuta, ahoa
heze eta dardarti, arima
samurtuta, gozo eta eder
egiten nauen maitasun infinitu honen
itxaropenean erreta.

Hilerria itsasoari begira

Esan, o, hilok, nor izan zen itsaso
Ozenari begira etzanda jarri zintuztena?
Nornahi zela ere, ohartzen al zen hildakoak jada
Gogait zirela txorien kantaz?
Uhinen ondo-ondoan paratuak,
Itsas urdinaren orro erlatsa
Senti dezazuen al da?

Isiltzen ez den itsasoaren ondoan
Zaudete, geldi-geldi, entzumena hilik
Marea gora nola doan aditzen,
Eta zuen ondoan mugitzen den itsasoa
Berpizte baten promes betegabea da.

Haizeak, udaberrian, leunki,
Han urrunean doan txalupatik
Emakume-irriak dakartza... Epel
Dator musua irriarekin, eta, harri
Hotza iraziz, zuhur, zuen ahoan
Kukutzen da eta kontsolatzen zaituzte doiki.
Baina gau beldurgarrietan, haizea itsas

Gainean uluka dabilenetan
Eta bizirik dirauten gizonek ontzi ahuletan
Dar-dar dagitenetan, eta zerua
Denean itsas uholdetan iraultzen,
Zuek, neurritsu eternalok, ezin
Duzue gehiago, eta ahalegin eskergaz
Dituzue buruak lurretik altxatzen.

Eta inork ulertzen ez duen mintzoz
Dagizue oihu: —Zatozte, itsas uhinak, pirritan,
Zatozte braustan, eta bil gaitzazue,
Beso amorosek pasioen mende
Bildu gintuzten gisan. Estutu gaitzazue,
Eta mugiaraz etzanda gauden
Ohatzetik, nondik gauero ikusten baititugu
Munduak anitz zeruak zeharkatzen.
Sartu, gure begi akituetan barna,
Xerkatu mihia, mintzatu zen hura, eta mugitu;
Jaurti gaitzazue hobitik braustan!

Eta itsasoak beharbada adituko du zuen deien
Ugaria, eta, mendia hondartzaren truk,
Arras harro estaliko zaituzte azkenik!

Orduan, behargin ulerberak bailiran,
Gelditu egingo dira uhinak eta, hilarri
Izkiriatuak irakurriz, apurka,
Talka leunez mugituko dituzte,
Emeki bultzaka, zuek askatu arte.
Oi, zuen oihuaren sakona, hilotz
Oihuaren handia, itsasoak besoetan hartu
Eta amildegi geldiezinaren magalera jaurtitzean!

Jarrera etzan beti-berean
Unaturiko besoek; tibia luzeek,
Burezur irribarretsuek: femur
Oker dotoreek, nahasirik oro,
Ilargi-izpien pean dantzatuko dute
Uraren mirarizko dantza.
Eta adats askatu batzuek,
Horailak akaso, jakinminez zuen peskizan
Datorren eguzkia bezala, itsas gainean
Irla hauskorrak dituzte sortuko eta, agian,
erakarriko
Txori txiki bidaiariak.

Emakume handiak

Emakume handietan hartu zuen unibertsoak
atseden.
Maitasunak ahitu zituen batzuk, suak eztainua nola;
erreginak zirenek beren artaldeetan isurarazi zuten
odola.
Beatrizen eta Lady Macbethen aiurria zein
ezberdina den!

Batzuen sabel maltzurrak marmolean gelditu dira.
Distirantak behialako handien ama handiak.
Eta haragi perfektua da, minaren arrandia.
Eta bertsoak bilbatzen dituzten eroak ere badira.

Hotsandiko antzeztokietatik bezala errekuperatzen
ditut
liburuetatik — Bihotz mertzenario, bekaitza diezu
zuk?
Aintzatsuak dira, handiak, eta zu ez zara ezeren
dina.

— Ai, haien hegoen arrastoan, basoetako otsemeen antzera,
haien logeletara jaitsi nintzen gertutik begiratzera
eta aharrausi itzel bat aditu nuen, zurearen berdin-berdina.

Apaltasuna

Nik paseatu nuen bizkarrean harroputz
Errima gutxi batzuen urre faltsua
Eta uste izan nuen hantuts,
Uzta arras aletsua.

Izan pazientzia, emakume iluna:
Egunen batean, Forma Suntsitzaileak,
Oro erre, oro jaleak
Ezabatuko du nire oihartzuna.

Nire liburu maiztuetara jaitsiko da,
Eta atzamarretan jasoz gora,
Masailak doiki puzturik eta, izan,

Zernahik aspertzen duen jaun handiaren gisan,
Ufako nekatu batean, hara!,
Haizatuko nau ahanzturara.

Gurpila (Lagun bat)

Lagun kastu eta handiak arrazoitzen du honela:
— Gaztea naiz, apenas bizi izan naizen. Senarra?
Engainu larria.
Hiru haur ditut, eta biraka dakusat urteen joan-
etorria
emoziorik gabeko amets geldo batean bezela.

Aldika, tentatuta, aritzen naiz nire balkoiak
zabaltzen,
dela gizon fina, dela harroa, dela zaputza
kausitzeko.
Alferrik! Ai nendi gai gaitz horretatik sendatzeko!
Baina maitasunak ez du ezinegonik moldatzen.

Arindu bai, akaso; baina gizonek, merezi,
ez dute nire saiakerarik merezi; bereizi
beza bihotzak, hesiturik, lausengu suharra.

Gorputz perfektua dut eta aho gorrimina,
amodio perfektuenerako propio egina
baina moja-belopean ostentzen dut nire garra.

Beste laguna

Eta beste lagun batek diost: — emakume
burutsuetan
porrota ziurra da maitasun tratuan.
Miresle andana dugu, egiaz, zakuan:
hurrupa txikien xerka dabiltza lur jotako bestaletan.

Ez dute ale espiritualetan jartzen bihotzik, lanak
nekea baitamaie. Ereile onek
eurek sortua dute adoratzen: gizonek
nahiago dituzte haragiari emanak.

Emakume mentalak jauzi-ohol gara bilakatzen:
gizonak hobetzen ditugu, haien arauak lantzen;
gugan fintzen dute beren grina eutsiezina.

Eta itxaroteaz akiturik, eskatzen diegunetan
bihotza, guk berei emanaren ordainetan,
beste batek darama guk apainduraz egina.

Hirugarrenak erantsi

— Lanik gutxiena ematen diona eramango du, agian.
Harengan arinduko zaio biziaren zama.
Burmuin bizkor orok arima hautsi bat darama,
eta gizonak festa nahi du andre-haragian.

Etxea, emakume apalak zaintzen du ondoen;
hark ez du irudimenezko mundurik bere.
Inoiz, miretsiriko gizonaren engainuaz oharturik ere,
soberakinak jaso, eta haren ondoan etzaten da
ondoren.

Ez du emazteak hura, hargatik, beretzat izaten, oso-
osorik;
maitalea ez izanagatik, baliteke bidelagun gozorik.
Agian gizonak amesten du, justu, guk bezala.

Eta haren bizimodu lasai, erregulatuaren zimendu,
eguneroko korapiloaren gainetik, bular argitsuan
zaintzen du
guretzat ezezagun den eme-ideala.

Iruzurra

Zurea naiz, Jainkoak daki zergatik, jakin baitakit
bihar hoztasunez abandonatuko nauzula
eta, nire begien liluraz gaindi, desioaren lilurak gain
hartzen dizula,
baina ez dut neure burua defendatzen hargatik.

Hau edozein egunetan amaitzea espero dut,
senak istantean esaten baitit zer duzun pentsatzen,
zer desiratzen.
Axola gabe bezala natzaizu beste emakume batzuei
buruz mintzatzen,
eta zeurea izanikoren batekiko laudorioak ere
entseatzen ditut.

Alta, nik baino gutxiago dakizu zuk, eta modu
handikian,
nire jabe sentitzen zarelako, zure jolas iruzurtian
aurrera darraizu, zeureganaturik aktore nagusiaren
laineza.

Nik isilik eta irribarre gozoz begiratzen dizut,
eta gogoberotzen zarenean, pentsatzen dut:
ez presatu, ez zara zu iruzurtia; ezpada nire ametsa.

Festa

Hondartza ertzean, ezkonberriak,
gozoak eta ederrak, dantzan, gerriak
lagunaren besoan abandonaturik.
Izarrak lekukotzat harturik.

Soineko urdinak, zuriak, zilarkarak, orlegiak...
Eta esku txikia handiak
estalia, zain dago. Eta esaldia,
gezurrezkoa, lausoa, sinetsia du ia.

Bada pozez dioenik: — Ederra da bizitza.
Bada eskua luzatzen duenik izar baten peskizan,
haren zain, liluramendu luzean.

Nik bizkarra eman diet. Kioskotik itsasoa urrun
dakusat, beltz eta ilun,
ahoan ironia. Orro egiten du haizeak.

Buenos Airesen tristeziari

Zuzen, gristu eta berdinak, kale goibelak.
eta noizbehinka, haietan, zeru zati baten arrastoak;
etxaurre ilunek eta lurreko asfaltoak
itzali zizkidaten udaberriko amets epelak.

Nola nenbilen haietan, alderrai, oharkabe, inguruko
lurrun grisaxka mantsoan blaiturik.
Eta orain kale haien monotoniaz arima gaixoturik,
ez deitu “Alfonsina!”, ez dut ezer erantzungo.

Zure etxeetako batean, Buenos Aires, geratzen
banaiz hila,
udazken-egunetan zure zeru gatibatuaren bila,
ez zait batere harrigarri egingo hilarri astuna.

Ezen ibai ilun, lanbrotsu, etsigarri eta deslai
horrek bustiriko zure kale zuzenetan alderrai
nenbilenerako nengoen ni lurperatua.

Nire hilarrirako epitafioa

Hemen natza: “Alfonsina” diotso argi
epitafioak makurtzen denari.

Hemen natza, eta putzu honetan
sorgor, gozatzen naiz atseginetan.

Jira-birarik ez begi uher hiletan,
hasperenik ez bihituriko ezpainetan.

Betiko lo sakonean nago, lasai;
hots egiten didate, baina ez dut jiratu nahi.

Lurra dut gainean, baina ez dut nabari,
negua dator, haizea, baina ez naiz hozten ari.

Udak ez du nire ametsik umotzen,
udaberriak ez dit pultsua bizkortzen.

Bihotzak ez du dar-dar, jauzi, taupada gehiago,
borroka-lerrotik kanpo nago.

Zer da hegazti hark dioena, ibiltaria?
Itzulidazu haren kantu urduria:

“Ilberri da, lurrin gozoa dario itsasoari,
”gorputz lerdenak ur-aparretan dira jostari.

”Gizon bat doa itsasertzean barna,
”ahoan, zurrupari eta ero, erle bat darama:

”Zapi zuriaren azpian bular bila dabil
”taupaka ari den beste bularra, eta gero hil.

”Marinelak brankan ameslari,
”neskatxak kanoetatik kantari.

”Ateko bandan dira ontziak, eta haien leize argietan
”gizonak doaz lur berrien ametsetan.

”Emazte honek, lurrean lo dagoenak,
”bere epitafioan bizitzari barrez ari denak,

”emakume denez, gezur bat gehiago
”grabatu du hilobian: *asperturik nago*”.

Mina

Urriko arrats ezin hobe honetan nahi nuke
itsasoaren urertz urrunean paseatu;
urrezko harea, eta ur berdeak,
eta zeru garbia niri so paratu.

Izan garaia, bikaina, aparta nahi nuke,
erromatar eme bat itxuratu;
itsasoa lotzen duten uhin erraldoiekin eta haitz
hilekin
eta hondartza zabalekin egoki batu.

Pausoa geldo, begiak hotz
eta ahoa mutu, neure burua abandonatu;
olatu urdinak granitoen kontra lehertzen
ikusi eta begirik ez kliskatu;
hegazti harrapariak arrain txikiak
jaten ikusi eta ez esnatu;
txalupa ahulak hondora litezkeela pentsatu
eta ez suspiriatu;
gizonik ederrena, zintzurra agerian datorrela
ikusi, eta maitatzerik ez desiratu.

Oharkabean, begirada galdu
eta sekula berriz ez topatu:
eta, zutik, zeruaren eta hondartzaren artean,
itsasoaren ahanztura eternal bilakatu.

Naizen hau

Leuna eta goibela naiz inor gurtzean,
zerua ere jaitsi dezaket, eta esku-ahurrez ukitu
beste baten arima nirera korapilatzean.
Ezingo duzu ohazal bigunagorik aurkitu.

Ez dago eskuak hobeto musukatzen dituen ahorik,
ezta inor ere amets batean hala uzkurtzen,
ezta horren gorputz txikian inola urtzen
den giza arima samurragorik.

Begien gainean naiz hiltzen,
txori bizien gisan baditut sentitzen,
une batez, nire hatz zurien azpian hegoak astintzen.

Ezagun dut liluratzen eta ulertzen duen mintzoa
eta badakit isiltzen ilargia gorantz badoa
erraldoi eta gorri amildegiez gaindi.

Amarentzako hitzak

Ez dizut egia handiez galdetzen. Bai zera!
Ez zenituzke erantzungo; soilik dut ikertzen
sabelean hazi ninduzunean ilargia testigu ote zen,
patio ilun loratuetan pasieran bera.

Eta kar latinoko zure bular joria
adituz lokartzen al nintzen, itsaso erlats ozenak
logaletu ote zizkizun gauak, eta ikusi al zenituen
ilunsentiaren urrean hondoratzen itsas txoriak.

Ezen alegiazkoa, bidaiaria dut arima guztia,
eta eromen laino mehe batek bustia,
noiz-eta ilargi berria igotzean zeru urdinaren erdira.

Eta plazer hartzen du, itsasoa indartsu zabaltzen
bada,
urrumaka, marinelen kantu zolien baitara
noraezean doazen hegazti handiei begira.

Lilura

Maitasun poemak

XIV

Nire zainetan barna habil. Patxadatsu sentitzen haut irristatzen. Lokietako, samako, ukabiletako arterietan bermatzen ditiat hatzak, hi haztatu nahian.

XIX

Maitasuna darit eta aparteko zerbait egin nahi nuke. Ez dakit zer den. Baina aparteko zerbait egiteko gogo eutsiezina dut. Zertarako maite dut, galdetzen diot neure buruari, zerbait handia, berria, ezezaguna egiteko ez bada?

Betetasuna (XXXIII)

Maitasun-poemak

Aizak: ni itsaso lokartua bezalakoa ninduan. Hik iratzarri ninduan, eta lehertu duk enbata. Nire olatuak astintzen ditiat, ontziak hondoratzen, zerura igo eta izarrak zigortzen; gero, lotsatuta, neure tolesturetan ezkutatzen nauk; erotuta, neure arrainak hiltzen ditiat. Ez iezadak izuz begiratu. Heuk nahi izan duk.

Agonia (LIX)

Maitasun poemak

Hire lepoari atxikia, azkenean, azala giharrari, azazkala hatzei eta miseria jendeari bainoago, nahiz eta hi, nahiz eta ni, eta hire eta nire arimak gorabehera, nire burua hirearekin berdindu zuan, eta hire ahotik nirera igaro zituan samina eta poza, gorrotoa eta maitasuna, lotsa eta urguilua, hilezkorrak eta hilotzak, garaituak eta garaileak, azpiratuak eta azpiratzaileak, menderatuak eta menderaezinak, birrinduak eta berreginak.

Gaua (LXVII)

Maitasun poemak

Ez haiz itzuliko. Nire izate osoak egiten dik dei, baina ez haiz itzuliko. Itzuliko bahintz, deika ari zaian nire izate osoak hinduke arbuiatuko. // Hire izate hilkorretik, orain, jada elkarrengandik urrun, erauzten diat hire begiekin begiratzen eta hire eskuekin laztantzen duen aire-antzeko fantasma, gehiago hirea ez dena. Nirea duk, nirea osoki. Harekin giltzapetzen nauk nire gelan eta inork, ezta nik ere, aditzen ez duenean, eta inork, ezta nik ere, ikusten ez duenean, eta inork, ezta nik ere, ez dakienean, besoetan biltzen diat fantasma, eta antzinako penduluen gisan, luze, astun eta irmo, kulunkatzen diat... hutsunea.

Hitz lepomoztuak

Hitz lepomoztuak,
nire ezpainetatik jausiak
oraindik sortubakoak;
birjina itoak
eguzki posiblerik gabeak;
desiraz astunak,
puztuak...

Ene ahoaren deformatzaileak,
jalgitzeko bulkadan;
eta hutsaren putzuak,
erortzean...

Ene ezti zerutiarraren gaingabetzaileak,
elkarren kontra estutuak
koroa loratuetan.

Odolustua ni zuengan,
—anartean sortu gabeak—
mundu honetako eta besteko sareak,
ilargierdiak,

arrain mamiz soilduak,
hegobako txoriak,
suge hezurgabetuak...
Ez barkatu,
bihotz.

Mendilerroa

Esku ikusezin batek
isilik laztantzen du
mundu birakarien
mami tristea.

Konprenitzen ez dudan norbaitek
bihotza beratzen dit
gozotasunez.

Abuztuko elurretan
zabaltzen da ekira
—apurtzaile goiztiar—
muxikaren lorea.

Mendizerraren aho
okrean etzanda,
granitozko emakume
izoztu batek
haizeari ulu,
bere bular
mortuaren mina.

Ilargi
mitxoletek
xurgatzen dizkiote
gauez
bular
izoztuak.

Eta nire betazaletan,
nire gorputza baino zaharragoa
den malko bat
hazten da.

Ekuazioa

Nire besoak:
jauzi dagite neure sorbaldetatik;
besoak: hegoak.
Ez lumazkoak: urtsuak...
Teilatuen gainean planeatzen dute,
gorago... hodei dira,
gero, euri,
itsas ur,
malko,
giza gatz...

Nire mihia:
helduz doa...
Ibai loratuak datoz
haren petaloetatik behera.

Nire bihotza:
abandonuan nauka.
Zirkulu eliptiko
ikusezinetan
zehar dabil.

Mahai biribila, astuna,
suzkoa...
Haranak ditu urratzen,
gailurrak erretzen,
zingirak lehortzen...
Eguzkia eguzki bila...
(Beste lur batzuk
dantzan ditu inguruan).

Nire hankak:
barrurantz ari dira hazten,
hondoratzen, finkatzen;
zuntz zapaleko
garroak makotzen dituzte.
Haritzak haizetara
dira orain;
nire gorputz zauritua
dute kulunkatzen...

Nire burua: tximista da.
Begiek, eznazazuahaztu
zerua dute edaten;
kometa galduak irensten,
izar hautsiak,

legeltxorrak...

Nire gorputza: hautsi da.
Bihotz-kateek
gerria lotzen diote.
Suge hilezkorra
lepoan kiribiltzen zaio...

Horacio Quirogari

Hi bezala hiltzea, Horacio, heure senean,
heure ipuinetan bezala, ez zagok gaizki;
oinaztura bat garaiz, eta akabo festa…
Guri bost zer dioten.

Basoan ez zagok bizitzerik zigorrik gabe,
ezta Paranara begira ere.
Bejondeiala hire esku irmoagatik, Horacio handia...
Guri bost zer dioten.

“Ez du oren orok kolpatzen —idatzia zagok—,
azkenak gaitu hobirat igortzen betiko”.
Minutu batzuk gorabehera... Nork dik ezer egotziko?
Guri bost zer dioten.

Gehiago usteltzen dik beldurrak, Horacio, heriotzak
baino,
hura atzetik jarraika dabilen arren.
Bapo edan huen, irribarrea ere eragin baitzian…
Guri bost zer dioten.

Badakit esku langilea estutu zizutela
nor izan zen ez, ordea: Norbait ala, sinpleki, Pan,
indartsuek ez baitute haien obra ukatzen...
(hi baino gehiago, esango duena duk indartsua).

Antzutasun-garaia

Emakumeari zenbakiek so egin
eta altxor bat utzi zioten magalean:
eta ibai gorri bat ikusi zuen handik irteten
munduari bira ematen ziona espiralean.

Zeinu arrotzak, ulertezinak ia,
ibaiertzetan itzal egiten, eta ilargia,
erriberetan maltzurki dibujatua,
itsasaldiak atontzen.

Uhaldiei esker kreatzaile izan zen
eta zenbaki hotzak begi izutuzko
aurpegi epeletan egin ageriko.

Egun batez, bere sabeletik ihesi joan zen ibaia
eta behiala gizonez loraturiko irla berdea
mortu bilakatu zen, eta harrotzen ikusi zuen haizea.

Zuhaitzaren ondoan

Ez dut gogoan noiz... Arin nindoan
halako mastadi batean gora
eta lau eskutara jaitsi nintzen lurrera
mingaina fruitu urtsuz alegera.

Eta zaldi-behorrak ikusi nituen airean,
zurda beltz eta suzko zartailu,
ekaitz-erauntsiak xaxatzen
eta nik garrasi egin nuen ahots ez artikulatuz.

Ihes egin nuen; eta besteekin batera,
hamaika piztia izukorren artean estututa
baratu nintzen, geldirik eta uzkurtuta.

Eta lurra astindu zuen adar arteko
tunel batean barneratu zen
animalia eskerga baten oinkada zakarra.

Nire txoriekin berriro

Ez nuen gehiago aditu zuen kontzertu arina,
ene txoriak: urrezko almenekin
ispiluzko hiria ikusi nuen eta haren argietan
banderak, eskuak baino areago, deika.

Eta ingurabide pikoan soinu arranditsuko
ahots larriak; eta gerturatu nuen hatza
eta erori zen papereztaturiko hiria
eta aireak idatzi zuen zurbil: miseria.

Zuen paparretara itzuli naiz berriro, bakarrik,
eta ez da zuena baino hobea, hegaldi kutuna,
eta izarraren gogo orbitala.

Entzuten dizuet berriz, askatuta,
eta zu, ene ttikia, nola ari zaren kantuz
nire balkoian: “zergatik utzi ninduzun?”.

Lapitza

Bost xentimotan erosi nuen izkinan,
aingeru trauskil batek saldu zidan;
eta zorrozteko unean
kanoi txiki eta sendoa iruditu zitzaidan.

Puskatu egin zen ideiak gainezka zituen mina
eta berriz zorroztu zuen aingeru goibelak.
Irten nintzen, hura aldean, eta brontzezko
musu batek memoriatik erauzi zidan. Adigabe,

poltsara jaurti nuen, mukizapi, gutunazal,
lore ihar, tutu koloratzaile,
billete, txartel eta turroi artera.

Noraezean nindoala, bortizki
jo eta airera bota ninduen ibilgailuren batek, eta
astinaldika
zihoan nire poltsa, barruan leherkari bat zuela.

Eros jainkoari

Hara non harrapatu hindudan lepotik,
itsasertzean, hire buirakako geziak
ni zauritzeko maneiatzen ari hintzen bitartean
eta lurrean ikusi nian hire lorezko koroa.

Panpina bati bezala atera nizkian barrenak
eta aztertu gurpil engainagarriak
eta urrezko txirriketan ondo bildurik
lakio bat kausitu nian, zioena: sexua.

Hondar gainean, jada piltzar ziztrin huts hintzela,
eguzkitara jarri hindudan, hire balentrien
litxarreroaren argira,
sirena beldurtuen korro baten aurrean.

Malda zurian gora zihoaan
engainuen hire ama pontekoa, Ilargi amandrea,
eta nik olatuen ahora jaurti hindudan.

Autorretratu barrokoa

Maskara greko bat, katakunba
erromatarretan lizundua, espazioa
ebakiz etorri zen nire aurpegi egokigarrira.
Burezurra, marmol zahar karkailaria.

Kontinente berriak tropiko eta hego-
ufadak haizatu, eta eguzkiak ireki zituen,
eta akantoa altzairuzko izur oldarkorrekin
trukatu zuen buruaren gainean.

Arrosa tropikalek kulunkatzeko
bezain arina zen ilargizko gorputzean
organo batek, samurtasunez gainezka,

bularra tolestu zidan. Baina, zergatik izozten
zen haren hotsa burezurraren aurka,
eta kartoizko aho irrigarrian hedatzen?

Ultratelefonoa

— Horaciorekin? — Badakit maskurian
uso-habia duzula orain,
eta zure kristalezko motozikleta
isilka ari dela zeruan hegan.

— Aita? — Amets egin dut zure katalintzarra
Tupungato bezain hazita dagoela;
berarekin ditu oraindik zure haserrea eta nire
bertsoak.
Bota tanta bat. Mila esker. Hobeto nago.

Laster nauzue bisitan; har nazazue
San Juaneko landetxean, nola eta harrika
hil nuen apoarekin batera; apo koitadua!

Idi-begirada zuen eta nire bi lehengusuek
akabatu zuten; gero hileta
zartagin eta guzti, eta, atzetik, arrosak.

Belarri bat

Arro distiratsu eta boli hilen
hobi txikia, kontrargizko
ildoduna; giza lepoaren
altuera tristean kobazulo bilakaturiko

maskor misteriotsua; itsasotik
burrunbari ekarritako barraskilo arrosa;
krimenak bere amarruak ezkutatzen dituen
labirinto inguratzailez sastatua.

Alditan, odolaren eguzkipean,
harkaitz gorriz marraztua eta, bestetan,
egunsentiko zeru-paperez egina:

Ilbeheran bezala hedatzen zara
eta han hondoan, lurpeko beltzean,
non pentsamenduaren lehoiak orro egiten duen.

Zentzutasunera itzulera

Zuk eguzkia apurtu zenidan: konstelazioen
erroteria horzdunetatik zintzilik zegoen,
zatikaturik, zuhaitza ukitu nahian,
argizko etxea lurra erretzera jolasten.

Koralez ildaskaturiko itsasoa altxatu
eta heliotropo-otzara batean,
hemen, nire zaiaren gainean utzi zenuen,
nire bularraren sehaska-kulunka gozoan.

Zure amodioak ebakita itzuli nintzen,
eta itzalaren ertzean eserita, neure kabuz
ari naiz, zentzu handiz, eguzki zatiak biltzen.

Ari da bere lekuan finkatzen; ari dira
olatuak nire zaiatik erortzen eta itsasoa
bere artalde amorratua zuhurtziaz egokitzen.

Lotara noa

Hik, lorezko hortzak, ihintzezko burukoa,
belarrezko eskuak ditunan inude finak,
presta itzan lurrezko maindireak
eta goroldio saratuzko ohazala.

Lotara noan, ene inude, etzan nazan.
Jarridan lanpara bat oheburuan;
jarri konstelazio bat; gustukoen dunana;
denak ditun onak; jaitsi ezan apur bat.

Utz nazan bakarrik: kimuak aditzen ditun loratzen...
oin zerutiar batek kulunkatzen hau goitik
eta txori batek konpasak markatzen dizkin

ahantz dezanan... Eskerrik asko. A, mandatu bat:
hark telefonoz berriz deitzen badu,
esaion ez tematzeko, kanpoan naizela...